



FAMILIENTZAKO INFORMAZIO OROKORRA

Urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean ezarritako prozedura aplikatuko zaie 2025-2026 ikasturtean ikastetxe batean matrikulaturik ez dauden haurrei, bai eta, eskolaturik egonda, Haur Hezkuntzako lehen zikloko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen dutenei ere.

Ikaspostua eska dezakete:

- Ikaspostua eskatu ahaliko dute 2024an, 2025an eta 2026ean (maiatzaren 11ra arte, egun hori barne) jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak. Eskara egiteko unean jaio gabeko haurren familiek ere egin ahaliko dute, jaiotza ziurtagiria 2026ko maiatzaren 12a arte aurkez dezaketelarik.

Haur bakoitzarentzat eskabide bakarra aurkeztuko da, behar bezala beteta.

ESKAERAK

EPEA: 2026eko otsailaren 23tik martxoaren 6ra

2026-2027 ikasturtean Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak onartzeko prozesua **EDUCA plataformaren bidez egingen da**. Horrek esan nahi du onarpen eskaerak plataforma horren bidez tramitatuko direla, eta **familiek edo** entitate titularrak zehaztutako langileek aurkeztuko dituztela.

Aurrez aurre aurkeztuz gero (Basaburuko Udalean- udala@basaburua.eus 948 50 30 30 edo **Ttikiena Haur Eskolan**- ttikienahe@gmail.com 948 38 77 30, aurretik hitzordua adostuta), eskaerak bat etorri behar du nafarroa.eus atariko tramiteen katalogoko fitxan dagoen ereduarekin. Ondoren, entitate titularra arduratuko da eskaera hori EDUCAn sartzeaz.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

Aurkeztutako dokumentazio guztiak **indarrean** egon beharko du eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

A- NAHITAEZKOA:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien NANaren, AIZren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.
- Eskara baldin bada oraindik jaio ez den haur batentzat, aurreikusitako jaiotze data egiaztatzen duen mediku txostena erantsi behar da. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, haurra noiz jaio den egiaztatzen duen agiria behar da.

B- ONARPEN IRIZPIDEAK EGIAZTATZEKO ETA BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA:

Eskatutako dokumentazioa interesdunek berek aurkezten ahal dute edo Hezkuntza Departamentuari baimena ematen ahal diote datuok eskuratu eta kontsultatzeko. Honako datu hauek soilik kontsultatzen ahal ditu departamentuak:

- Familia ugariaren titulua
- Familia gurasobakarraren titulua
- Ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren desgaitasunaren ziurtagiria
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko ekitaldiko aitorpena



Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko aitortpena bi gurasoek batera egin badute, aski da eskatzaileak emandako baimena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko aitortpena modu bereizian egin bada, beharrezkoak dira bi gurasoen edo legezko tutoreen datuak eta baimen idatzia.

Gainerako dokumentazioa, edo kontsulta baimendua ez duten datuei buruzko dokumentazioa, interesdunek aurkeztu beharko dute, balorazioa egin dadin.

- LEHENTASUNAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

- **Anai-arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea:**

- Familia liburuaren kopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.
- Tutoretza edo familia harreraren kasuetan, inguruabar hori egiaztatzen duen ebazpenaren kopia.
- Ikastetxearen ziurtagiria, alegatutako anai-arreba guztien datu pertsonalak eta matrikulatuta dauden ikasmaita zehazten dituenak.

- **Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea:**

- Bizilekua egiaztatzeko, kasuan kasuko udalak emandako errolda ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurreko 90 egun naturalean emana; hartan jasota egon beharko du haurra eta guraso edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, udalerrri horretan erroldatuta daudela. Jaio gabeko haurren kasuan, gutxienez gurasoetako edo legezko ordezkarietako baten errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Lantokiaren inguruabarra egiaztatzeko, zaintza eta jagoletza duen guraso edo legezko ordezkariaren lantokia non dagoen adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
 - Besteren konturako langileek, lantokia non dagoen egiaztatzeko, enpresaren ziurtagiria aurkeztuko dute, non agertuko baitira interesdunaren datu pertsonalak, bere lantokiaren helbideari buruzko datuak, eta lan bizitzaren txostena. Bi dokumentu horiek eskabideak aurkezteko ohiko epea bukatu aurreko 30 egun naturalen barruan emanak izan beharko dute.
 - Langile autonomoei dagokienez, laneko helbidea egiaztatzeko, aurkeztuko dute indarrean dagoen irekiera lizentziaren kopia bat, dagokion udalak emana, edo jardueren aurretiazko jakinarazpena, bai eta lan bizitzaren txostena ere, eskabideak aurkezteko ohiko epea bukatu aurreko 30 egun naturalen barruan emana.

- **Familia unitatearen per capita errenta:**

- Onarpen baremoaren ondorioetarako per capita errenta kalkulatzeko, familia unitatearen errenta izanen da errenta aitortpeneko likidazio oinarriaren edo oinarrien guttizkoa. Familia unitatearen per capita errenta honela kalkulatu da: 2024. urteko zerga ekitaldiari dagokion guttizko likidazio oinarria, zati familia unitatearen kide kopurua 2024ko abenduaren 31n (alegia, aitortzailea; ezkontidea edo bikotekide egonkorra; eta PFEZari buruzko foru araudiaren arabera kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak).
- Kontuan hartuko diren errenta tarteak, martxoaren 6an indarrean egonen den lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) arabera izango da:



- Per capita errenta LGSaren erdia edo hori baino txikiagoa bada: 3 puntu
 - Per capita errenta LGSaren erdia baino handiagoa eta soldata horren hiru laurden adinakoa edo txikiagoa bada: 2 puntu
 - Per capita errenta LGSaren hiru laurdenak baino handiagoa eta soldata horren adinakoa edo txikiagoa bada: 1 puntu
 - Per capita errenta LGSa baino handiagoa bada: 0 puntu
 - Errenta maila justifikatzeko dokumentazioa honako hau da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren fotokopia, familia unitateko kide konputagarri guztiena, 2024ko zerga ekitaldiari dagokiona. Aitorpena egiteko betebeharrak ez izanez gero, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, eta/edo bestelako errentak edo diru sarrerak jasotzea justifikatzen duen dokumentazioa edo, azken buruan, horien zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titular den toki entitateak familiaren urte horretako diru sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.
 - Kasua bada, banantzearen epai judiziala edo hura legez egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
 - **Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai-arrebaren batek**
- Desgaitasuntzat hartuko da % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna ofizialki aitorturik badago.
- Hura aitortzeko, honako agirietako baten kopia aurkeztu beharko da:
 - Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena, ziurtagiria edo txartela.
 - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena (GSIN), ezintasun iraunkor osoagatik, ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena.
 - Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkoragatik edo lanerako ezigaitasunagatik erretiro pentsioa esleitzen duena.
 - Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emandako txartela, desgaitasun maila aitortzen duena, identifikatzeko baliozko dokumentu batekin batera.
 - Desgaitasun hori egiaztatzeko beste edozein ziurtagiri ofizial.
 - **Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea**
 - Irizpide hori baloratzeko, genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izaera aitortzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.
 - **Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egitea**
 - Irizpide hori baloratzeko, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, non zehaztuko baitira langilearen datu pertsonalak eta plantillan duen lanpostuari buruzko datuak.
 - **Legez familia ugariko kide izatea**



Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

- **Haurra familia harrerako egoeran egotea**
 - Irizpide hau baloratzeko, harrera egoera formalizatu dela egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.
- **Familia gurasobakarra izatea**
 - Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.
- **Haurra erditze anizkoitzean jaioa izatea**
 - Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

Lehentasunak ezartzeko irizpideak baloratu ondoren berdinketarik bada, lehentasun irizpideak aplikatuko dira hurrenez hurren, martxoaren 6ko 16/2024 Foru Aginduaren 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, berdinketa hautsi arte. Hala ere, berdinketa hausten ez bada, irizpide osagarri bat erabiliko da, hots, gurasoen lan egoera edo egoera akademikoa.

- IRIZPIDE OSAGARRIA:

- **Gurasoen edo legezko ordezkarien lan egoera edo egoera akademikoa:**

Hau baloratzeko, bi gurasoei dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbu eta familia gurasobakarren kasuan edo familia gurasobakarra izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan.

- **LAN EGOERA**
 - Besteren kontura lan eginez gero, Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda egotearen ziurtagiri ofiziala, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurreko 30 egunean emana.
 - Norberaren kontura lan eginez gero, mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofiziala, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurreko 30 egunean emana.
 - Eszedentzian egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan egoera aktibotzat hartzeko, idatziz zehaztu beharko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi baino lehen.
 - Ikasten arituz gero, matrikularen frogagiri ofiziala, ikasturteko egutegia eta ordutegia.
 - Kasua bada, gurasoetako edo legezko tutoreetako bati ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat dagokiola frogatzen duen agiria.
- **EGOERA AKADEMIKOA**
 - Ikasketa araututzat hartzen dira titulu akademiko ofizialak eskuratzeko egiten direnak: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitateko titulazioak eta abar.



Ikasketei lehentasunezko dedikazioa ematen zaiela ulertuko da, baldin eta interesduna ikasturtean zehar matrikulatuta badago ikasturte oso bat osatzen duten kreditu edo orduen % 80an gutxienez, kasuan kasuko ikasketa planaren arabera. Inguruabar hori egiaztatzeko, matrikularen egiaztagiri ofiziala eta ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztu beharko dira.

Irizpide osagarria erabilita ere berdinketa mantentzen bada, Hezkuntza Departamentuak zozketa publikoa egingen du berdinketa hausteko, Zerbitzuen Katalogoen web orrian adierazitako egunean.

C- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK BALORATZEKO EGIAZTAGIRIAK:

Balorzio hori justifikatzen duten txostenak.

ZERRENDAK ARGITARATZEA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATU AURREKO BEHIN-BEHINEKO

EGOERA KONTSULTATZEKO EPEA: APIRILAK 22

FAMILIEK EMAN ZAIEN PUNTUAZIOA DELA-ETA

ERREKLAMAZIOAK/ZUZENKETAK EGITEKO EPEA: APIRILAREN 23TIK 29RA

EDUCAN ARGITARATZEA ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK: MAIATZAK 5

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDEN GAINEN ZUZENKETAK, ERREKLAMAZIOAK EDO UKO EGITEAK AURKEZTEA: MAIATZAREN 6TIK 12RA

JAIOZTA ZIURTAGIRIA AURKEZTEKO AZKEN EGUNA (martxoaren 7a eta maiatzaren 11a bitartean jaiotakoentzat): MAIATZAK 12

EDUCAN ARGITARATZEA ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK: MAIATZAREN 15A

MATRIKULA

MATRIKULAK AURREZ AURRE FORMALIZATZEA: MAIATZAREN 18TIK 22RA

Tokia: Matrikula aurrez aurre egin behar da, **Ttikiena Haur Eskolan, Jauntsaratsen, aurretik hitzordua adostuta (ttikienahe@gmail.com 948 38 77 30).**

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartilla edo txartelaren fotokopia.
- Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren 2025eko aitortpenaren fotokopia, amarena eta aitarena edo legezko ordezkariarena. Aitorpena egiteko betebeharrak ez izanez gero, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, eta/edo bestelako errentak edo diru sarrerak jasotzea justifikatzen duen



dokumentazioa edo, azken buruan, 2025. urteari dagozkion errenten edo diru sarreraren gaineko zinpeko aitorpena, eta/edo ikastetxearen titular den toki entitateak familiaren urte horretako diru sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.

Agiri hori, beranduenez, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren 2025eko aitorpenaren kanpaina bukatzen den egunean aurkeztu beharko da.

c) Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituen.

d) Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.

e) Kasua bada, 2026eko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik familia unitateko kideen kopurua aldatu dela egiaztatzeko dokumentazioa.

Matrikula ez bada ezarritako epean egiten, eskuratutako ikaspostua galduko da eta, haurra itxaron zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira.

OHARRAK

- Ikaspostua eskatu ahalko dute 2024an, 2025ean eta **2026ean (maiatzaren 11ra arte, egun hori barne)** jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak.
- Ikaspostuen eskabidea eta esleipena egiten dira ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren jaiotza dataren arabera:
 - 0 urte: 2025eko irailaren 2tik 2026eko maiatzaren 11ra bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.
 - 1 urte: 2024ko irailaren 2tik 2025eko irailaren 1era bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.
 - 2 urte: 2024ko urtarrilaren irailaren 1era arte (biak barne) jaiotako haurrak.
- **Matrikula aurrez aurre egin behar da Basaburuko Ttikiena Haur Eskolan; eskatutako dokumentazioa eraman beharko da.**
- AUKERA HOBETZEA:
 - Baldin eta, eskabideak aurkezteko epe arruntean parte hartu ondoren, haurrak ikaspostua lortzen badu eskabidean lehen aukeran adierazitako eskola ez den beste eskola batean, matrikula egiteko unean, “aukera hobetzea” hautatzen ahalko da, dagokion ereduaren bidez. Une horretatik aurrera, baldin eta itxaron zerrendaren batean bazegoen, hartan segitzen ahalko du.
 - Ez bada aukera hobetzeko prozedura hori baliatzen, haurra esleitu zaion eskolan matrikulatzean bertan behera geldituko dira beste itxaron zerrendetatik eratorritako eskubideak.
 - Aukera hobetzea hautatuz gero, horrek esan nahi du haurrak aukera izanen duela beste eskola batean ikaspostua lortzeko, baldin eta eskola horri lehentasun handiagoa eman bazion. Aukera hobetzeko prozedura matrikularen bigarren epea bukatu arte aplikatuko da, hau da, 2026ko maiatzaren 28a arte.



- Hala ere, aukera hobetzeko prozeduraren bidez egiten den matrikula berri orotan, interesdunen esku egonen da etorkizunean aukera hobetzeko posibilitateei uko egitea edo aukera horiek atxikitzea.
 - “Aukera hobetzea” prozedura aplikatzearen ondorioz ikaspostu berri bat lortzen bada, interesdunak automatikoki galduko du aurretik esleitua zitzaion ikaspostua, eta matrikula berria egin beharko du horretarako adierazitako epeetan.
 - Matrikula ez bada adierazitako epe horietan egiten, lortutako ikaspostua galduko da eta, haurra itxaron zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira.
- Matrikula egiteko lehen epea bukatutik, itxaron zerrendan dauden eskatzaileei esleituko zaizkie hutsik gelditu diren ikaspostuak, puntuazio hurrenkera zorrotzaren arabera.
 - Haurraren guraso ahala duten gurasoek edo haurraren legezko ordezkariak 2026ko maiatzaren 27 eta 28an matrikulatu behar dituzte onartuen bigarren behin betiko zerrendetan dauden haurrak.
 - Matrikula egiteko bigarren epea bukatutik, hutsik gelditu diren ikaspostuak esleituko zaizkie itxaron zerrendan dauden eskatzaileei, puntuazio hurrenkerari zorrotz jarraituz.
 - Haurraren guraso ahala duten gurasoek edo haurraren legezko ordezkariak 2026ko ekainaren 1 eta 2an matrikulatu behar dituzte onartuen hirugarren behin betiko zerrendetan dauden haurrak.
 - Matrikulatzeko hirugarren epea bukatutakoan, kasuan kasuko entitate titularrak kudeatuko ditu Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskola publiko bakoitzeko itxaron zerrendak.
 - Epe arrunteko behin betiko itxaron zerrendak indarrean egonen dira argitaratzen direnetik 2027ko otsailaren 12ra arte.
 - Onarpen eskabide berriak aurkezten ahalko dira entitate titular bakoitzak zehaztutako datatik 2027ko otsailaren 12ra bitarte, baldin eta haurrak 16 aste beteta baditu edo urtebete beteta adin txikikoentzako instalaziorik ez duten ikastetxeetan.
 - Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen baremoan dagokion atalean.
 - Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.
 - Hautapen batzordeak interesdunei eskatzen ahal die zuzen ditzatela aurkeztutako dokumentazioan egindako akats formalak.

TARIFAK

Jantokiaren tarifak aplikatuko dira Hezkuntza Departamentuak 2026-2027 ikasturterako tarifak arautzeko emandako foru aginduan ezarritakoarekin bat.



BAREMOA

LEHENTASUNAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK	Puntuazioa
Anai-arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea	Geh. 3
Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea	Geh. 10
Udal titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan).	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan.	2
Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean.	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean.	2
Familia unitatearen per capita errenta	Geh. 3
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada	3
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta horren hiru laurden adinakoa edo txikiagoa bada	2
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada	1
- Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa	0
Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai-arrebaren batek	Geh. 2,5
- Ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren desgaitasuna.	2
- Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoek edo legezko ordezkariak edo anai-arrebek desgaitasuna badute.	0,5
Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea	Geh. 1
Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada	1
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea	
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egiten badute.	0,8
Legez familia ugariko kide izatea	0,8
Haurra familia harrerako egoeran egotea	0,8
Familia gurasobakarra izatea	0,8
Erditze anizkoitzean jaioa izatea	0,8



IRIZPIDE OSAGARRIA (Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko/ 2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)	
Familia orokorrak Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1
Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1